



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

Kontu-hartzailetzaren txostena

2024ko Aurrekontuak

1.- Aplikatu beharreko legedia

Txosten hau egiteko, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 4.1 b) 2º artikuluan xedatutakoa betez egin da, erreferentzia gisa honako araudi hau hartzen da nagusiki:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena.
- 500/1990 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, Aurrekontu Erregelamendua.
- 128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena.
- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15koa, Gipuzkoako Foru Aldundiarena, Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitatearen arau-esparrua onartzen duena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Txosten honen helburua da egiaztatzea Arrasateko Udalaren 2024rako Aurrekontu Orokorren proiektuak, txostena egiteko aurkeztutakoak, betetzen dituela Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren I. tituluan ezarritako baldintzak, edukiari, egiturari eta prestaketari dagokienez, bai eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoa ere.

Hain zuzen ere, txosten hau egin da, 21/2003 Foru Arauaren 6. artikuluko hirugarren puntuko e) eta f) letren arabera nahitaezkoa delako. Honela dio:

“6. artikulua. Edukia.

(...)

3.- Aurrekontu orokorrean 1. eta 2. Idatz zatietan aipatutako agiriak ez ezik jarraiko hauek ere egon behar dira:

(...)

e) *Ekonomia-finantzazko txostena; bertan sarreren eta aurreikusitako kreditu-eragiketen ebaluaziorako erabilitako oinarriak azaldu behar dira, eskatuko diren betebeharrei eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko kredituak aski direla frogatu behar da, hau da, aurrekontua orekatuta dagoela. Txostenean, gainera, udalak konpromiso kredituak finantzazko nabikoa baliabide dituen ere aztertu behar da, eta aztertu ere aparteko atal batean.*

f) *Aurrekontuko sarrera eta gastuetatik ateratzen den saldoa Kontuen Europako Sistemaren arauen arabera kalkulaturako finantzaketa-abalmen edo -beharrarekin erlazionatzeko behar den informazioa.”*

Gainera, eta aipatutako Foru Arauaren 14.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, txostena aurrekontu-espeditatearen nahitaezko zatia da.



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

2.- Aurrekontu orokorra egitea eta onartzeko prozedura

Aurrekontua zinegotzi delegatuak eta alkate-udalburuak egin dute, 21/2003 Foru Arauaren 14.1 artikulua ematen dion ahalmena erabiliz.

Udalbatzaren osoko bilkura da aurrekontu orokorra onartzeko organo eskuduna, gehiengo soilez.

Hasierako onespena eman ondoren, 15 egun baliodunez jendaurrean jarriko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarri ondoren. Epe horretan, interesdunek aztertu ahal izango dute eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Osoko Bilkurari.

Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada; bestela, osoko bilkurak hilabeteko epea izango du erreklamazio horiek ebazteko.

Aurrekontu Orokorra, behin betiko onartu eta aurrekontu bakoitzaren kapituluka laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, indarrean sartzen den unean.

Hala ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea indarrean jarri zenetik, 79. artikuluan ezartzen den bezala:

“79. artikulua. Herritarrek udal-aurrekontuetan gastu publikoko konpromisoak identifikatzen parte hartzea.

- 1. EAEko toki-erakundeek kontsulta edo deliberazio publikoko prozesuak egingo dituzte, beren ezagarrrietara eta errealitatera ondoen egokitzen den moduan eta egokien irizten dieten kontuari edo kontuei dagokienez, erakundearen buruen ekitaldirako aurrekontuak prestatzen hasteko unean gastuari buruzko erabaki edo alderdi zehatzak definitzeko.*
- 2. Diru-sarrera publikoei buruzko erabakiak ezin izango dira deliberazio-prozesuen xede izan.*
- 3. Aurrekontu-arloko deliberazio-eremuei buruzko deliberazio-prozesuak ez dio eragingo toki-erakundeak aurreikusitako defizitaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuak betetzeari, ezta berankortasun-legerian hornitzaileei ordaintzeko aurreikusitako batez besteko epeari ere.*
- 4. Tokiko araugintza-ahalaren bidez edo udal-erabakiaren bidez ezarriko dira parte hartzeko modalitate horren forma, prozedura eta edukia.”*

Hau da, toki-erakundearen Aurrekontu Orokorra izapidetzean nahitaezkoa da herritarrek parte hartzeko izapidea egitea. Kontu-hartzaile honek egiazta dezakeena da, aurreko ekitaldietan bezala, dagokion herritarren parte-hartzean adosten diren gastuetarako kredituak esleitzen direla.

3.- Aurrekontu orokorra egiteko epea

10/2003 Foru Arauaren 14. artikulua aurrekontua egiteko eta onartzeko prozedura eta epeak jasotzen ditu:



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

“14. artikulua. Gertutu eta onesteko eskumena.

- 1.- Toki erakundearen administrazioaren aurrekontua haren buruak prestatuko du; borretarako, hurrengo ekitaldirako aurrekontua egiteko behar diren gidalerro ekonomikoak eman abal ditu.
- 2.- Administrazio organismo autonomo bakoitzaren aurrekontua, orokorraren osagai dena, hasieran organo eskudunak proposatuko duena, atxikita dagoen toki erakunde buruari bidaliko zaio irailaren 30a baino lehen.
- 3.- Merkataritzako organismo autonomo eta sozietate publikoek udal toki erakunde buruari 6. artikuluan ezarritako agiriak bidali behar dizkiete irailaren 30a baino lehen. Kontabilitate orri horiek oinarri hartuta, toki erakunde buruak administrazio aurrekontuaren egitura ekonomikoari dagozkionak prestatuko ditu, artikuluan mailan gutxienez.
- 4.- Aurreko idatzi-zatietan aipatutako aurrekontuak eta aurreikuspen orriak oinarritzat hartuta, toki erakunde buruak aurrekontu orokorra prestatuko du eta, Kontuhartzailletzak txostena eman ondoren, arauzko tramitazioa urriaren 15a baino lehen eginda, 6. artikuluan zehaztutako eranskinekin eta agiriekin bidaliko dio udalbatzari, hark onets dezan edo zuzen dezan edo itzul dezan.
- 5.- Onespen erabakia bakarra izango da eta bertan aurrekontu orokorreko aurrekontuak xehekatu behar dira; haiek ezin dira onetsi bereiz.
- 6.- Aurrekontu orokorreko aurrekontu bakoitza hasierako mentsik gabe onetsi behar da. Nolanahi ere, eragiketa arrunten ziozko sarrerak gutxienez gastu arruntak eta zorren amortizazio-gastuak bat eginez sortzen den kopuruaren beste izan behar dira.”

Aurrekotik ondorioztatzen denez, aurrekontua egiteko eta onartzeko epeari dagokionez, espedientea udal-kontu-hartzailletzaren esku jarri zen 2023ko abenduaren 11n nahitaezko txostena egiteko, eta Arrasateko Udalaren Aurrekontu Orokorra ez da izapidetzen ari legez ezarritako epeen arabera. Adierazi beharra dago Arrasateko Udala kontu-hartzaile gabe egon dela, eta egoera horrek aurrekontuaren osaketa prozesua atzeratu du.

4.- Aurrekontu orokorraren dokumentazioa

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 6. artikuluan arautzen da aztergai dugun espedienteak osatu behar duen edukia:

“6. artikulua. Edukia.

1. Toki-erakundearen eta bai organismo autonomoen eta partzuergoen aurrekontuetako bakoitzak honako hauek izango ditu:
 - a) Ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubide ekonomikoaren gutxi gorabeherako diru-sarreraren egoera-orria.
 - b) Gastuen egoera-orria, dagozkion betebeharrak, ordainketakoak zein konpromisokoak, betetzeko beharrezkoak diren kredituak jasoko dituen.
 - c) Programa-taldeak deskribatzeko taulak, 12.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - d) Aurrekontuaren edukia eta aurrekoarekiko dituen aldaketa nagusiak azaltzen dituen memoria, bai eta aurrekontua egiteko erabilitako irizpideak ere.
 - e) Onartutako eta erabilitako konpromiso-kredituen eranskin bat. Eranskin horretan, aurrekontua aurkezten den egunean erakundeak izatera horrekin erabili dituenak jasoko dira, urte bakoitzerako bereizita; likidatu gabeko aurrekontuetan, egun horretan indarrean dauden kontsignazio guztiak jaso behar dira.
 - f) Ekitaldian zehar egin beharreko inbertsioen eranskina, Lurzoruzko Ondare Publikoari dagozkionak eta gainerakoak bereizita.
 - g) Transferentzia eta dirulaguntza arrunten eta kapital-dirulaguntzen eranskin bat, Aurrekontuan aurreikusitako kapitulu horietako gastuak zehaztuta, baita aplikatu beharreko araudia eta emateko prozedura ere.
 - h) Zorpetzeari buruzko eranskin bat, aurrekontu-ekitaldiaren hasieran eta amaieran erakundeak izango duen finantza-zorren aurreikusitako mailarekin, aurreikusitako aldaketak eta interesen ordainketak zehaztuta.
 - i) Langileen eranskin bat, aurrekontu-zuzkidura duten lanpostuen zerrenda indibidualizatuekin, ordainsariak eta gizarte-gastuak bereizita.



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

2. *Enpresa-entitate publikoen, partzuergoen eta sozietate publikoen aurrekontuek honako agiri hauek jasoko dituzte:*
- a) *Aurreikusitako galdu-irabazien kontua.*
 - b) *Aurreikusitako balantzea.*
 - c) *Ondare garbiaren aldaketan behin-behineko egoera-orria.*
 - d) *Azalpen-memoria, honako hauek jasoko dituena: aurreikuspenen egoera-orriak eta kontuak, aurreko ekitaldikoekin alderatuta aurkezten dituzten aldaketak eta horiek egiteko erabilitako irizpideak. Era berean, hurrengo ekitaldian eragina izango duten konpromiso ekonomikoen berri emango da.*
 - e) *Transferentzien eta dirulaguntzen eranskin bat, arrunta eta kapitalekoa. Bertan, kontzeptu horiengatik egoera-orrietan eta aurreikuspen-kontuetan aurreikusitako gastuak zehaztuko dira, bai eta aplikatu beharreko araudia eta emateko prozedura ere.*
 - f) *Zorpetzeari buruzko eranskin bat, aurrekontu-ekitaldiaren hasieran eta amaieran erakundeak izango duen finantza-zorren aurreikusitako mailarekin, aurreikusitako aldaketak eta interesen ordainketak zehaztuta.*
 - g) *Langileen eranskin bat, lanpostuen banakako zerrendarekin. Ordainsariak eta gastu sozialak bereiziz.*
 - h) *Ekitaldian zehar esleitu edo egin beharreko inbertsioen eranskina, Lurzorru Ondare Publikoari dagozkionak eta gainerakoak bereiziz.*
3. *Aurreko 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako agiriek eta ondorengo agiriek osatuko dituzte aurrekontu orokorrak:*
- a) *Aurrekontu orokorren edukia azaltzen duen memoria. Bertan, aurrekontuek aurrekoekiko dituzten aldaketan analisia jasoko da, aldaketa esanguratsuenak azpimarratuz, bai eta aurrekontu bakoitzaren eta Aurrekontua Betearazteko Arauan jasotako gainerako neurrien edukia ere.*
 - b) *Tokiko sektore publikoaren aurrekontu bateratua.*
 - c) *Aurrekontua Betearazteko Araua. Besteak beste, bermeak emateko eta zorpetzeko gehieneko mugak jaso behar dituzten erakunde bakoitzari aplikatuko zizkizkionak.*
 - d) *Itxitako azken ekitaldiko aurrekontu orokorren likidazioa, lortutako gauzatze-mailari buruzko memoriarekin batera, eta uneko ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren gauzatze-egoerak, gutxienez lehen seihilekoari dagozkionak.*
 - e) *Txosten ekonomiko-finantzario bat, honako hauek azalduko dituena: diru-sarrerak eta aurreikusitako kreditu-eragiketarako ebaluatzeko erabilitako oinarriak, eska daitezkeen betebeharrak eta zerbitzuen funtzionamendu-gastuei aurre egiteko kredituen nahikotasuna, eta, ondorioz, aurrekontua benetan berdinduta dagoela. Era berean, txostenak modu independentean aztertuko du konpromiso-kredituak finantzatzeko udal-baliabideen nahikotasuna.*
 - f) *Aurrekontuko sarrera eta gastuetatik ateratzen den saldoa Kontuen Europako Sistemaren arauen arabera kalkulaturako finantza-aketa-ahalmen edo -beharrarekin erlazionatzeko behar den informazioa.”*

Arrasateko Udalaren 2024ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorraren espedientean dagoen dokumentazioa aztertu ondoren, honako hauek osatzen dute: kontu-hartzailearen memoria, Aurrekontua Gauzatze Araua, partiden arabera banandutako aurrekontua, batzordeen arabera banandutako aurrekontua, programa-taldearen arabera banandutako aurrekontua, transferentzien eta dirulaguntzen eranskina, zorren eranskina, konpromiso-kredituen eranskina eta inbertsioen eranskina. Langileen eranskinak ere egon behar dituzte.

Aurrekontua Betearazteko Arauari dagokionez, adierazi behar dut, orain arte bezala, barne-kontrola arautzen dela. Aldez aurreko fiskalizazio mugatua ezartzen da, araudiak ezartzen dituen nahitazko betekizunekin bakarrik; hau da, esku hartzeko dauden bitartekoekin bat etorriz.

Hauek dira aurrekontuetako konpromiso-kredituak:



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

Izendapena		2025	2026
kap 6	UR HORNIDURA ZERBITZUA	254.978,00	245.008,00

Betetzen du 21/2003 FAren 22.2 artikuluan ezarritakoa: "*Etorkizuneko ekitaldi bakoitzera indarrean dauden konpromiso-kredituen zenbateko metatua ezingo da izan likidatutako azken ekitalditik ondorioztatutako eragiketa arruntengatiko baliabideen % 25 baino handiagoa, betiere 6.3.e) artikuluan eskatutako azterlanetik muga txikiagoa ondorioztatzen ez bada*".

2022ko ekitaldiko eragiketa arrunten zenbatekoa 34.455.913,91 eurokoa da.

Errepikatu behar da, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza dela-eta, posible dela konpromiso-kreditu gehiago onartu behar izatea, hala badagokio.

5. Udalaren aurrekontua

Udalaren 2024rako aurrekontua 45.753.138,68 eurokoa da.

Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 14.6 artikulua xedatzen duenez, eragiketa arruntengatiko sarrerak, gutxienez, izaera bereko gastuak gehi zorpetzeagatiko amortizazio-gastuak izango dira.

Udalaren aurrekontu-proiektuan, ohiko diru-sarrerak gastu arruntak gehi zorraren amortizazio-gastuak baino handiagoak dira (gaur egun ez du zorrik):

Diru-sarrera arruntak: CAP (1,2,3,4,5) = 38.660.303,00 €

Gastu arruntak + Mait. = KAP (1,2,3,4,9) = 34.078.319,67 €

Sarrera arruntak > Gastu arruntak + Maileguen amortizazioak (ez dago zorrik)

Aldea aurrezki garbia da: 4.581.983,33 €

Aurrezki garbi doitua: aurrezki garbia – kreditu globala: 4.523.420,11 €

Azken zenbateko hau da 2024-12-31n lortuko litzatekeen aurrezki garbia, proiektuan aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak aurrekontuan ezarritako baldintzetan egikaritutako balira, desbideratzerik gabe.



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

Diru-sarrerren aurreikuspenen ebaluazioa

1., 2. eta 3. kapituluak: zergak, tasak eta beste diru-sarrera batzuk

Zuhurtasun-printzipioaren arabera, 1., 2. eta 3. kapituluaren aurrekontuak kutxa-irizpidearen arabera egin behar dira, kontuan hartuta, gainera, 2024 urterako zerga-ordenantzetan eta prezio publikoen ordenantzetan onartutako aldaketak. Hala ere, egia da 2. kapituluaren aurreikuspena bat datorrela bilketa-joerarekin, baina ez da gauza bera gertatzen 1. eta 3. kapituluetan.

Kapitulu horietan aurreikusitako diru-sarrerren berri eman beharko luke diruzaintza-zerbitzuak, hirigintza-arloak egindako aurreikuspen eta zenbatespenekin batera. Egia da aurreko urteetan ez dela egin, eta aurten oso denbora-tarte txikiarekin eskatu dela. Hurrengo urteetan txosten horiek jasotzea gomendatzen da.

4. kapitulua: Transferentzia arruntak (jasotakoak)

Kapitulu honetan, udalak beste instituzio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik zuzeneko kontraprestaziorik gabe jasotzen dituen eta eragiketa arruntak finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrera ez-tributarioak jasotzen dira aurrekontuan.

Kapitulu honetako kontzeptu kuantitatiboki garrantzitsua Foru Funtzari dagokiona da. 2024. urterako aurreikusitako zenbatekoa 19.154.733,00 € da, eta bat dator GFak 2024ko ekitaldirako argitaratutako konturako ekarpenen zenbatekoarekin.

Joan den urrian egindako 2023ko aurrelikidazioaren emaitza positiboa bada ere, eta Udalaren aldeko 40.730,00 €ko saldoa ematen badu ere, ez da behin betiko zifra bat, eta, beraz, gorabeherak izan ditzake, gehiago edo gutxiago; hortaz, zuhurtziaren eta urterokotasunaren irizpidearen arabera, ezin da 2024ko aurrekontuan sartu.

Behin betiko likidazioa aurreikusitako baldintzetan egiten bada, diru-sarrera handiagoa izango litzateke, diruzaintza gauzatuko litzatekeelako, eta, hala badagokio, aurrekontu-aldaketen finantzaketa-iturri izan liteke, legez ezarritako baldintzetan. Edo, behin betiko zenbatekoa jakin ondoren, 2023ko ekitaldiari egotzi. Aurreko urteen irizpideari jarraitu beharko litzaioke, alegia, 2023ko ekitaldiari egotzi behin betiko zenbatekoa, eta irizpidea aldatzea erabakitzen bada, justifikatu zergatik.

5. kapitulua: ondare-sarrerak

Kapitulu honetan, jabetzaren edo udal-ondarearen errentetatik datozen zergaz kanpoko diru-sarrerak jasotzen dira. Aurreikuspenak 284.710,00 dira.



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

6. kapitulua: Inbertsio errealak eta hirigintza-jarduketetatik eratorritako bestelako diru-sarrerak besterentzea

Kapitulu honetan diru-sarrerak aurreikusten dira lursail bat besterentzeagatik (1.500.000, 00 €), hirigintza-aprobetxamenduengatik (100.000,00 €) eta urbanizazio-kuotengatik (150.000,00); horiek hirigintza-arloaren arabera baloratu eta informatu beharko lirateke. Arestian aipatu bezala, ohitura ez da izan, eta oso denbora-tarte txikiarekin abisatu da.

Aurrekontuan zenbateko txikiagoko 2 partida sartu dira, baina ia ez dute garrantzi erlatiborik.

7. kapitulua: kapital-transferentziak (jasotakoak)

Kapitulu honetan, udalak beste instituzio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik zuzeneko kontraprestaziorik gabe jasotako diru-sarrera ez-tributarioak sartuko dira aurrekontuan, kapital-eragiketarako finantzatzeko.

Kapital-transferentziengatik 2024ko diru-sarreraren aurreikuspena 1.501.735,68 eurokoa da. Programa bakoitzaren deskribapen-memorietan, guztizko zenbatekoa osatzen duten dirulaguntza/transferentzia bakoitzaren balorazioa eta jatorria zehaztu beharko litzateke.

Duen garrantzi erlatiboagatik, Eusko Jaurlaritzaren 1.439.735,68 euroko dirulaguntza aurreikusi da. Gaur egun, informazio asko falta da dirulaguntza horri buruz. Dirulaguntza 7.378.234,67 eurokoa izan daiteke, hainbat urtetan banatuta (A/22-11005 sarrera-erregistroa duen dokumentua). Gastuari ekin aurretik, komeni da dirulaguntza honen ezaugarriak ondo ziurtatzea eta, hala badagokio, dagozkion konpromiso-kredituak onartzea.

8. kapitulua: Aktibo finantzarioak

Kapitulu honetan zorra inorenganatzetik, akzioetatik eta obligazioetatik datozen diru-sarrerak jasotzen dira, baita emandako maileguen itzulketetatik datozenak ere.

Kasu honetan, Udaleko langileek hitzartutako kontsumorako maileguak itzultzearen ondoriozko diru-sarreraren aurreikuspenak jasotzen dira.

9. kapitulua: Pasibo finantzarioak

Kapitulu honetan, jasotako maileguetatik datorren finantzaketa jasotzen da, mailegu horien izaera eta itzultzeko epea edozein izanik ere.

2024ko aurrekontuan aurreikusten da 3.750.000,00 €ko kreditu-eragiketa hitzartzea.



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

Gastu-aurreikuspenen ebaluazioa

Sarreraren egoera-orrian sartutako aurreikuspenak gainditu egin daitezke, baina gastuen egoera-orrian gehienez onar daitezkeen obligazioak finantzatzeko dituzten kredituak onesten dira. Kredituak mugatzaileak dira, eta ezin dira konprometitu onartutako mailatik gorako gastuak.

1. kapitulua: Langile-gastuak

Kapitulu honi aplikatzen zaizkio langileen ordainsarien gastuak, kalte-ordainak, Gizarte Segurantzarako eta Elkarkidetzarako nahitaezko kotizazioak, eta indarrean dauden akordioak eta xedapenak betez Udalak langileentzat egindako izaera sozialeko beste gastu batzuk, hala nola prestakuntza-gastuak.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua ezartzen duenez, toki-korporazio bakoitzari dagokio “urtero, aurrekontuaren bitartez, plantilla onartzea. Plantilla horrek funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta behin-behineko langileentzat gordetako lanpostu guztiak jaso beharke ditu”.

TATBren 126.3 artikulua araberan, “aurrekontua indarrean dagoen bitartean plantillak aldatu abal izateko, aurrekontua aldatzeko ezarritako izapideak bete beharke dira”.

Bestalde, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 17. artikulua honako hau ezartzen du:

“17. artikulua

Lanpostuen zerrendak aurrekontu-aurreikuspenetara egokituko dira, halako moldez non ezingo duten barne hartu dagokion ekitaldirako aurrekontu-plantilletan aurreikusitako kredituekin bete ezin den zuzkidura duen lanposturik.”

Pertsonal sailetik helarazi dute Arrasateko Udaleko 2024ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda, 2024ko aurrekontuaren espedientean txertatzen direlarik.

2024ko aurrekontuko 1. Kapituluaren zenbatekoa 13.041.174,63 €, 2023ko aurreikuspeni %3ko igoera aplikatu zaie.

2. kapitulua: Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak

Kapitulu honetan sartzen dira programak egiteko eta eskumenak baliatzeko beharrezkoak diren ondasun arruntak eta zerbitzuak eskuratzeko kredituak, kapitala edo ondare publikoa handitzen ez dutenak.

Kapitulu honetako diru-izendapenak udal-gastuaren % 33,34 dira, eta baliabide gehien kontsumitzen duen udal-gastuaren kapitulua osatzen dute.

Eskura dugun kontabilitate- eta aurrekontu-informazioa kontuan hartuta, aldeztu aurretik legeztatu hartutako konpromisoak finantzatzeko dituzten partidetan ez da aurkitu, printzipioz, eskasiarik.



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

3. kapitulua: Finantza-gastuak

Aurrekontu-kapitulu honi egozten zaizkio, batez ere, Udalak formalizatutako maileguen interesei dagozkien gastuak eta gainerako finantza-gastu eta -komisioak. Udalak 3.750.000 €ko mailegua aurreikusten badu ere, horri dagokion interesak 2025 urtean gauzatuko lirateke.

4. kapitulua: Transferentzia arruntak (emandakoak)

Kapitulu honetan, Udalak beste sektore batzuei eman beharreko kopuruak kontabilizatzeko behar diren kredituak biltzen dira, sektore publikoa osatzen dutenak edo beste edozein erakunde edo pertsona izan, eragile hartzaileen zuzeneko kontrapartidarik gabe, eta eragiketa arruntak finantzatzeko.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera:

«8. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten beste edozein erakundek, aldeztu aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte dirulaguntzen aplikazioarekin lotu nahi diren helburu eta ondorioak, horiek lortzeko epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzearen mende.»

Udalak Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta hainbat aldaketa onartu ditu. Hala ere, beti ez dator bat errealitatearekin; hortaz, Plan Estrategikoan agertzen diren zenbatekoak eta ematen den dirulaguntzaren kopurua bat ez badatoz, aipatu plana aldatu beharko litzateke.

Gainera, zuzenean ematen diren dirulaguntza batzuk izendun bezala jaso beharko litzateke, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 a) artikuluari jarraikiz. Bestela, salbuespenezko izaera justifikatu beharko litzateke, aipatutako legearen 22.2 c) artikuluaaren arabera.

Azkenik, kapitulu honetan, zerbitzu mankomunatuak Mankomunitateari egin beharreko transferentzien aurreikuspena ere jasotzen da, besteak beste. Azken hori, eta Mankomunitatearen 2024ko ekitaldirako aurrekontua onartu gabe dagoenez, %15 igotzea aurreikusi da, baina, gehikuntza handiagoa balitz, kredituen aldaketa egokia izapidetu beharko da.

5. kapitulua: Kreditu globala eta bestelako ezustekoak

Diru-kopuru hori 2024ko ekitaldian gertatzen diren ezusteko gastuei aurre egiteko erabiliko da, 58.563,22 euro, hain zuzen ere.



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

6. kapitulua: Inbertsio errealak

2024ko aurrekontuan 9.061.294,18 euroko inbertsioak egitea aurreikusten da. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 114. artikulua araber, Lurzoruaren Udal Ondareari dagozkion inbertsioak kuantifikatu behar dira, gainerakoetatik bereiziz.

Aurrekontuaren Inbertsioen Eranskinean, hirigintza-arloak sinatutako txostena jaso beharko litzateke. Txosten horretan, aurrekontuan sartutako inbertsio guztiak zerrendatzeaz eta baloratzeaz gain, inbertsio bakoitzak Lurzoru Ondare Publikoan duen eragina adierazi beharko litzateke.

8. kapitulua: Aktibo finantzarioak

Aktiboak eskuratzeko, aurrerakinak eta maileguak emateko eta gordailuak eta fidantzak eratzeko egiten den gastua jasotzen du kapitulu honek.

Korporazioko langileei kontsumorako maileguak emateko aukera aurreikusten da, 90.000 € gehienez ere.

9. kapitulua: Pasibo finantzarioak

Kapitulu honetan, zorrak amortizatu eta kitatzeagatiko gastuak jasotzen dira, edozein dela ere horien modalitatea.

Udalak gaur egun zorrik ez badu ere, 2024ko ekitaldian aurreikusten da 3.750.000 €ko mailegu baten kontratazioa, baina 2025 urtean hasiko litzateke amortizatzen; beraz, kapitulu honen aurrekontu-esleipena 0,00 € da.

Aurrezki garbia

Aurrezki garbia da toki-erakunde batek bere eragiketa arruntan eta zorpetzearen ondoriozko kargaren ondorioz duen oreka edo, hala badagokio, desoreka ezagutzeko oinarritzko magnitudea; beraz, finantza-osasuneko aurrekontu-adierazlea da, eta hori ez betetzeak zorpetzeko ezintasuna dakar, eta udalak behartzen ditu bere finantza-saneamendua planifikatzera.

Toki-erakundearen finantza-tutoretzako araubidea arautzen duen foru-araudiak ezartzen duenez, aurrezki garbiaren kalkuluan zenbatu beharreko diru-sarrera arruntak zehazteko, diru-sarrera arruntzat hartzen ez diren ezohiko diru-sarrerak kendu behar dira.

Aurreko erregulazioarekin bat etorriz, aurrekontuan jasotako gastu guztiak exekutatu balira eta proiektatutako diru-sarrera guztiak likidatu balira, honako hau izango litzateke Udalak 2024/12/31n lortuko lukeen aurrezki garbia:



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

Udalaren 2024ko aurrekontuaren % 100 gauzatzearen ondoriozko aurrezki garbiaren kalkulua:

Diru-sarrerak: 1. kapitulua. Zuzeneko zergak	7.958.000,00 €
Diru-sarrerak: 2. kapitulua. Zeharkako zergak:	1.000.000,00 €
Diru-sarrerak: 3. kapitulua. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	8.617.160,00 €
Diru-sarrerak: 4. kapitulua. Jasotako transferentzia eta dirulaguntza arruntak	20.800.433,00 €
Diru-sarrerak: 5. kapitulua. Ondare-sarrerak:	284.710,00 €
A. Diru-sarrera arruntak	38.660.303,00 €
Doikuntzak: 0,00 €	

B. Aparteko diru-sarrera arruntak 0,00 €

C. Diru-sarrera arrunt arruntak (A-B) 38.660.303,00 €

Gastuak: 1. kapitulua. Langile-gastuak	13.041.147,63 €
Gastuak: 2. kapitulua. Ondasunak eta zerbitzuak erostea	15.252.544,14 €
Gastuak: 3. kapitulua. Finantza-gastuak	25.500,00 €
Gastuak: 4. kapitulua. Emandako transferentzia eta dirulaguntza arruntak	5.700.564,68 €
Gastuak: 5. kapitulua. Kreditu orokorra eta bestelako ezustekoak	58.563,22 €
D. Gastu arrunta	34.078.319,67 €

E. Aurrezki gordina (C-D) 4.581.983,33 €

Gastuak: 3. kapitulua. Maileguren interesak:	0 €
Gastuak: 9. kapitulua. Zorraren amortizazioa	0 €
F. Udal-zorra itzultzeko gastuak:	0 €

Aurrezki garbia (E-F) 4.581.983,33 €

Aurreko kalkuluaren arabera, diru-sarrera arruntak gastu arruntak baino 4.581.983,33 € handiagoak dira (aurrezki gordina).

Zorpetzerik eta/edo finantza-kargarik ez dagoenez, aurrezki gordina bat dator aurrezki garbiaren zifrarekin (4.581.983,33 €), eta gastu ez-arrunta finantzatzeko erabiltzen da.

Aurrezki garbi doitua 4.523.420,11 €-koa izango litzateke, hau da, kreditu globala kontuan hartu gabe.



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

Aurrekontua

Kapitulua	Deskribapena	Urtea	Hasierako aurr
1	Zuzeneko zergak	2024	7.958.000,00
2	Zeharkako zergak	2024	1.000.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	2024	8.617.160,00
4	Transferentzia arruntak	2024	20.800.433,00
5	Ondare sarrerak	2024	284.710,00
6	Inbertsio errealeen inorengatzea	2024	1.751.100,00
7	Kapital transferentziak	2024	1.501.735,68
8	Finantz aktiboen aldaketa	2024	90.000,00
9	Finantz pasiboen aldaketa	2024	3.750.000,00

GUZTIRA

45.753.138,68

Kapitulua	Deskribapena	Urtea	Hasierako aurr.
1	Pertsonal gastuak	2024	13.041.147,63
2	Ondasunak eta zerbitzuak	2024	15.252.544,14
3	Interesak	2024	25.500,00
4	Transferentzia arruntak	2024	5.700.564,68
5	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	2024	58.563,22
6	Inbertsioak	2024	9.061.294,18
7	Kapital transferentziak	2024	2.523.524,84
8	Finantz aktiboen aldaketak	2024	90.000,00
9	Finantz pasiboen aldaketak	2024	-

GUZTIRA

45.753.138,68

Aurrekontua, guztira, 45.753.138,68 eurokoa da.

Gastuei dagokienez, hauek dira hura osatzen duten magnitude nagusiak:

- Gastuen % 28,50 langileei dagokie.
- Aurrekontuaren % 33,34 ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko gastu arruntera bideratzen da.
- Gastuaren % 12,46 sustapen-politiketan eta dirulaguntzetan gauzatu da.
- 2024ko ekitaldirako aurrekontuaren % 19,80 inbertsioetara bideratuko da.

Diru-sarrerei dagokienez:

- Diru-sarreren iturri nagusia jasotako transferentziak eta dirulaguntzak dira, eta diru-sarreren aurrekontuaren % 45,46 osatzen dute.



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

- ii. Bigarren sarrera-iturria (aurrekontuaren % 18,83) tasak eta bestelako diru-sarrerak dira.
- iii. Aurrekontua finantzatzeko iturrietan hirugarren erreferente gisa, beste baliabide propio bat dugu, zuzeneko zergak, aurrekontuaren % 17,39.

6. Aurrekontuaren mailaketa

2024rako aurrekontua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan ezarritako Finantza Orekaren Printzipioaren arabera berdinduta aurkezten da, onar dadin.

Aurrekontua berdintzeak esan nahi du diru-sarreraren egoera-orrian agertzen diren hasierako kontsignazio guztiak nahikoak direla gastuen egoera-orritik eratorritako betebeharreari aurre egiteko. Parekatze hori ez da maila globalean bakarrik gertatzen (diru-sarreraren hasierako aurrekontua 45.753.138,68 €-koa da, gastuen aurrekontua bezala), baizik eta, gainera, eragiketa arrunten bidez likidatzea espero den hasierako kontsignazioen guztizkoa nahikoa da gastuen egoera-orrian jasotzen diren gastu arrunteei aurre egiteko, eta marjina dago inbertsioak diru-sarrera arrunten bidez finantzatu ahal izateko.

Aurrekoa gorabehera, eta 2024ko baliabideen eta gastuen arteko aurrekontu-berdinketaren printzipioari eutsiz, 2024ko Aurrekontu Orokorrak 21/2003 Foru Arauaren 14.6 artikuluan ezarritakoa betetzen du.

Hori da informatu behar dudana,

Behin-behineko kontu-hartzailea